

# Getxoko labarrak, geologoaren erreferente

## Lutetiarreko estratotipoaren *urrezko iltzea* jarri dute Gorrondatzen

Hemendik aurrera, duela 47,8 milioi urteko historia ikertu nahi duten geologoek Gorrondatxeko labarrak izango dituzte erreferente nagusi. Hain zuzen ere, Lutetiar estaia ikertzeko leku egokiena dela erabaki dute nazioarteko geologia-erakunde garrantzitsuenek, hau da, ICS Estratigrafiaren Nazioarteko Batzordeak eta IUGS Geologia Zientzien Nazioarteko Batasunak. Izendapen hori *urrezko iltze* baten bidez adierazten da, eta otsailaren 13an jarri zuten dagokion lekuan, Gorrondatxeko labarretan.

Izendapena bereziki pozgarria da EHUko Xabier Orue-Etxebarria, Estibaliz Apellaniz eta Aitor Payros geologoentzat, hamar urte baino gehiago eman baitituzte hori lortzeko lanean. Haiak azaldu dute nolakoa izan den prozesua: "Estratotipo izendapena lortzeko, lekuak baldintza batzuk bete behar ditu; besteak beste, eskura egon behar du, geruza-sekuentzia osatua izan behar du, ez ditu arazo tektonikoak (failak, tolesdurak...) izan behar, eta mikrofosil asko izan behar ditu, egoera onean. Gainera, gomendagarria da analisi paleomagnetikoak egiteko aukera izatea ere. Bada,



Ezkerretik eskuinera, Aitor Payros, Estibaliz Apellaniz eta Xabier Orue-Etxebarria EHUko geologoak, Gorrondatzen, *urrezko iltzea* jarri duten lekuan. ARG.: XABIER ORUE-ETXEBARRIA.

frogatu dugu Gorrondatxeko labarrek baldintza horiek guztiak betetzen dituztela".

Baldintza guztiak betetzen dituela frogatzeaz gain, beste hautagaiak baino hobea dela ere erakutsi behar izan dute. Xabier Orue-Etxebarriak nabarmendu duenez, "niretzat bereziki garrantzitsua da izendapena, hemendik aurrera Paris

aipatu beharrean (han baitzegoen orain arte Lutetiarreko erreferentea), Gorrondatxeren eta Getxoren izenak azalduko direlako geologia-liburuetan".

Hala ere, Muskiztik Baionara bitarteko itsasertz oso goraiatu du EHUko ikertzaile taldeak: "euskararen itsasertz oso paradisu geologiko bat da, ikerketa geologikoak egiteko

leku paregabea, batik bat Behe Kretaziko eta Paleogeno garaikoak (duela 40 milioi urtetik duela 125 milioi urtera)". Horren erakusgarri, beste bi *urrezko iltze* daude euskal kostan, Zumaiako Itzurungo labarretan, hain justu.●



Etor zaitetz ezkutuko ingurune natural hau ezagutzera eta abenturaz gozatzera

## Sobrongo abentura-zentroa

kanoa, kayak, paintball, mendi-ibilaldiak, orientazioa, mendi-bizikleta, arku-tiroa, igerilekuak...



01423 Sobron (Araba)  
tel.: 945 359016  
faxa: 945 359137  
<http://www.aventurasobron.com>  
h. el.: [info@aventurasobron.com](mailto:info@aventurasobron.com)

Eskola-umeentzako prezio bereziak